

TRANSHUMANISMOA: SENTIMENDUEN ABOLIZIOA HOBEKUNTZA GISA

Peter Slotedjik-en ustez teknologiak gizaki egiten gaitu. Hura izan da betidanik eboluzioaren emaille eta ez da zerbait arraroa egungo aurrerapenak horretan oinarritzea. Hain zuzen ere hori da transhumanismoak defendatzen duena: aldaketa teknologikoen bidez espeziearen hobekuntza edo eboluzioa. Tesi horren oinarrian gizakiaren ikuspegi mugatu eta pesimista bat hauteman dezakegu; hots, gizakia izaki akastun gisa definitzen da. Horren gain hobetu beharraren inperatibo kategorikoa dago, non edozein arlotan hobekuntza bat egitea posiblea bada egin beharrezkotzat hartzen den. Alabaina, badirudi zientziak ez dituela beharrezko ezaugarriak betetzen horrelako baieztapen bat unibertsalizateko. Azter dezagun, bada, gaia atalez atal.

1319ko Danteren *La Divina Comedian* lehen aldietako bat da “transhumanizar” hitza agertzen dena. Bertan, erlijio-maila batean gauzatutako trantsizio bezala ulertzen da, giza normaltasunetik harago doan gainditze espiritual gisa. Hala ere, bere esanahi modernoa Julian Huxley biologoari zor diogu, 1927an gizakiaren esku hartze hutsez teknologia bidezko gizateria gainditze bezala definitu baitzuen. Hilezkortasuna, psikologia kontrolatua, adimen mugaezina... teknologiaren erabilerarekin lortu nahi diren helburuak dira hauek. Horrela, esan dezakegu ilustrazioaren ezaugarriak barne hartzen dituela, hala nola, Kantek defendatuko duen eta Aro Modernoaren ardatz den arrazoimenarekiko erabateko konfidantza giza espeziearen aurrerapenari dagokionez .

Egun, aurrerapenaren eta hobekuntzaren arteko lotura hori erabat kontrajarrita ikusi dezakegu, eta badirudi arrazoimenarekiko konfidantza erabat itsua dela. George Orwellen 1984 liburuan argi ikusten den bezala, zientzia (edo jakintza orokorrean), Kanten inperatibo kategorikoarekin apurtuz, helburu jakin bat lortzeko bitartekari bezala erabiltzen da, eleberri distopikoan herria kontrolpean mantentzea kasu. Horrela, Jürgen Habermas filosofoak transhumanistak “Teknooptimistak” direla dio, gaur egun teknologia gizakiarengandik guztiz urruntzen den prozezu bezala ikusten baitute. Beste era batean esanda, transhumanistak teknologiaren funtzio sozial, politiko eta ekonomikoen alderdi bakarra ikusten dute.

Transhumanismoaren praktika lau arlo konbergenteetan oinarrituko litzateke: bioteknologia, nanoteknologia, informazioaren teknologiak eta ezagutzaren zientziak. Ikuspuntu neurobiologikotik- eta hau da gehienbat gaur landuko duguna- “sentipen gaitasunak” hobetzea du helburu, farmakologia edo ingenieritza arlotik hobetze moralak edo nahi ez den psikologia baztertzea bezalakoak helmuga gisa jarritz.

Mugimenduko partaideentzat arazoetako bat ustezko giza ahultasun morala da; hau dela eta gizakia ez da gai egungo arazoei aurre egiteko, berotze globala barne. Horren aurrean Julian Savulescu eta Brian D. Earp bezalako pentsalariak “*moral enchacement*”a edo dopin morala proposatzen dute: morala hobetzeko farmakologia. Horrela, dena delako zientziaren esku hartzeak enpatikoagoak, toleranteagoak, eta funtsean, pertsona hobeak egingo gintuzke, larrialdietan erantzun hoberenak emateko prest. Bestalde, ekintza kriminalei dagokionez ere proposamen honek zer esana dauka. Estimulazio zerebrala bezalako teknikekin delitugileen jokabideak aldatuko lituzkete, nolabait *Doctor Jekyll eta Mister Hyde* eleberrian bezala.

Baina, besteen arrazionamendu morala erabakitzeko ahalmena izanda, zer arrazoibide jarraituko genuke? Ingurumenaren babesean eta ongizatean oinarritutako moral “arrazionala” sustatuko genuke, ala etekin ekonomikoetan eta faktore onuragarrietan oinarritutakoa? Historian zehar gizakiaren ibilbidea ikusita, proposamen hauek etorkizun batean onartuko balira, burmuineko kirurgia horiek jasoko zituzten lehenengoak ekintzaile sozialak eta iraultzaileak izango liratekeela esatea ez da astakeria, izan ere, boteretsuentzat horiek dira arrikutsuenak.

Bestalde, transhumanistentzat beste giza akatsetako bat ahultasun emozionala da, hots, tristura aurrerapenerako oztopo gisa ikusten dute. Konponbide bezala, mugimenduaren defendatzaile nagusienetako bat den David Pearce pentsalariak sentimenduen eta emozioen aldaketa bat proposatzen du: teknologiaren bitartez esperientzia negatiboetatik lortutako sentimendu horiek guztiak deuseztatzea. Minaren ezinezko hetereogeneizazioa aldarrikatuz, ez al da oinarri hedonistadun tesi hau tristura ikusteko era sinpleegia? Izan ere, sufrimendu motak mugagabeak eta pertsona bakoitzarengan desberdinak diren heinean abantailak edo eragozpenak ekar ditzakete egoeraren arabera.

Hala eta guztiz ere, tristuraren debekua ez da ideia unibertsala eta hainbat kulturetan goraipatua izateaz gain filosofiaren historian zehar asko landutako gaia izan da: adibidez, Aristotelesek tristura sormenarekin lotzen zuen. Horren adibide ditugu Goya edo Picasso, beraien lan ezagunenak une pertsonal txarrenetan egin zituztenak. Shopenhauerrek,aldiz, hau erru sentimenduarekin lotzen zuen , eta Nietzscheri dagokionez, bere supergizakia eratze bidean beharrezkoa zen zerbait bezala definitu zuen.

Historia hasi zenetik gaur egun arte sufrimenduaren garrantzia ukaezina da, aipatutako filosofoek eta artistek baieztatzen duten bezala estetikaren auzi nagusienetako bat izanik. Sentimendu hau existituko ez balitz etorkizuneko transhumanoarentzako artearen historiako agerraldi garrantzitsuenek ez lukete lekurik izango, hala nola, Madame Butterfly-ek ez luke ezta lehenengo ekitaldiaren erdia iraungo, Edward Munchen artelanak ahaztuta leudeke eta Pablo Nerudak ez zuen zertaz idatzi izango. Ez al da hori benetan tristea?

Transhumanistek postulatu duten gizakia adimentsua eta sufrimendurik gabe litzatekeen heinean Bukowskik adimena tristurarekin lotzen du. Eguneratuz, esan dezakegu egungo jendartean sufrimendua ez dagoela guztiz ondo ikusita. Horren erakusle dira antidepressiboen salmentak: ikerketa batzuen arabera munduko biztanleriaren %15ak kontsumitzen ditu pilula hauek. Bitxia bada ere, hauen eskaintza eta kontsumoarekin kasuen igoera bat ematen da urtez urte: zenbat eta farmako gehiago ekoiztu gero eta jende triste gehiago daude. Beraz, benetan esan dezakegu farmakologiak bermatu dezakeela sufrimendurik gabeko bizitza?

Farmakoek sortzen duten interes ekonomikoa alde batera utziz, tristura egungo sistema kapitalistaren mehatxu bihurtu da: gogo faltak produktibitatea jaisten duela eta orain ezinbestekoa da langileak pozik mantentzea. Horren aurrean ondasun materialen bidez heldu daitekeen zoriontasun idealizatu bat eskaintzen digute, banakako eta norbere gorputzari dagokion askatasunaren izenean guk geuk geure burua egungo proletargoaren kutxan sartzeko.

Politikari heldu diogula, beste honako hau ere izan dezakegu buruan: sufrimendurik gabeko bizitzak, munduan injustiziak badira ere, haiek ez somatzea ekar diezaguke. Injustiziak hautemateko gaitasun ez horrek berauen aurka altxatzeko aukera ezabatzen du, eta horrela, transhumanoa gizaki alienatu eta deshumanizatu bat litzateke, Albert Camusen *El extranjero* eleberriko pertsonai nagusiaren antzekoa.

Hasieran esan dugunez transhumanismoak gizakiaren ustezko ahultasunekin bukatu nahi du. Nire galdera hurrengoa da: benetan dira aipatzen dituen horrek ahultasunak? Horregatik aritu naiz testuan zehar hobekuntza moralak eta sentimentalak ekar ditzaketen arazoez, eta hori dela eta aipatu ditut baita zenbait ondorio politiko eta ekonomiko. Eman dezake tristuraren goraipamenean oinarritzen dela iruzkin hau, baina ez ditut sentimenduak erromantizatu nahi, ezta horietatik zenbat ikasi dezakegun azpimarratu. Nire uste apalean,

zerbait argi bada honako hau da: emozio guztiak eta horietatik eratorritako sentimendu guztiak dira garena egiten gaituztenak, gizaki. Sufrimendua gustuko den zerbait ez bada ere badago hau baino deserosoagoa den zerbait; sentimendu eza.